



# Ingurumen alorreko sentsibilizazioa, hezkuntza eta partaidetza

## Sensibilización, educación y participación ambiental




### 1. Ingurumen-kontsultak

Donostiako Udaleko Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzuan, baita Cristina Enea Fundazioan ere – Bizikletaren Behatokia barne –, ingurumenari buruz egindako kontsulta kopuruaren urteko bariazioa jasotzen du adierazle honek. Goranzko joera lortzea da helburua.

### 1. Consultas ambientales

Este indicador recoge la variación anual del número de consultas registradas en el Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad del Ayuntamiento de San Sebastián y en Fundación Cristina Enea, incluyendo las dirigidas al Observatorio de la Bicicleta, relacionadas con temas ambientales, siendo la tendencia deseable el aumento.

|   |                                       |
|---|---------------------------------------|
| Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzuan 2017an egindako kontsulta kopurua<br>Número consultas Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad 2017 | (a)                                   |
| CEFn 2017an egindako kontsulta kopurua<br>Número consultas FCE 2017   | (b)                                   |
| 2016ean egindako kontsulta kopurua, guztira<br>Número consultas totales 2016  | (c)                                   |
| $\left(\frac{a+b}{c} \cdot 100\right) - 100$  |                                       |
| <b>Urteko bariazio-tasa: % -11</b>  | <b>Tasa de variación anual: -11 %</b> |



Iturria: Donostiako Udaleko Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua eta Cristina Enea Fundazioa.  
Fuente: Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad, Área de Medio Ambiente del Ayuntamiento de San Sebastián y Fundación Cristina Enea.

Kontsulta kopuruak behera egin du hirugarren urtez jarraian, % 11 2017. urtean 2016. urtearekin alderatuta. Kontsulta kopuru gehienak materia organikoa biltzeko edukiontzien inguruan, auzo eta banakako konpostaren inguruan, bioaniztasunaren inguruan, energiaren inguruan, Klima-aldaketaren inguruan, zarataren inguruan eta Donostitruken inguruan izan dira, baita Cristina Enea Fundazioko Ingurumen Baliabideen Etxean garatzen diren jardueren inguruan eta Bizikletaren Behatokian bizikletaren erabilerari buruz egindako kontsultak. Ingurumenari buruzko gaiak presentzia handia dute gizartean, eta hiritarrek ere garrantzi handia ematen diete. Horregatik, informazio-eskaera nabarmena da. Kontsulterik % 55 inguru emakumeek egin dituzte, gizonezkoak, ordea, % 45.

El número de consultas desciende por tercer año consecutivo, un 11 % en 2017 respecto a 2016. Los temas que han generado un mayor número de consultas han sido el contenedor de recogida de materia orgánica, el compostaje comunitario e individual, la biodiversidad, energía, Cambio Climático, el ruido y Donostitruk, así como cuestiones relacionadas con las actividades que se desarrollan en el Centro de Recursos Medioambientales de Fundación Cristina Enea y el uso de la bicicleta que se recogen en el Observatorio de la Bicicleta. Se constata que los temas ambientales están presentes en la sociedad, siendo objeto de atención ciudadana; esto explica la importante demanda de información. Alrededor del 55 % de las consultas están realizadas por mujeres, correspondiendo a los hombres el 45 %.




## 2. IKS osatzen duten kideen kopurua

Donostiako Ingurumeneko Kontseilu Sektoriala osatzen duten elkarten kopuruak izan duen urteko bariazioa azaltzen du. Joera horri eustea da helburua.

## 2. Número de integrantes del CSMA

El indicador muestra la variación anual que se produce en el número de entidades que integran el Consejo Sectorial de Medio Ambiente de San Sebastián, siendo la tendencia deseable el mantenimiento.

|   |     |  |     |
|---|-----|--|-----|
| Kide kopurua 2017an<br>Número de integrantes en 2017        | (a) | Kide kopurua 2016an<br>Número de integrantes en 2016 | (b) |
| $\left( \left( \frac{a}{b} \right) \cdot 100 \right) - 100$ |     |  |     |
| <b>Urteko bariazio-tasa: % 0</b>                            |     | <b>Tasa de variación anual: 0 %</b>                  |     |



Ingurumeneko Kontseilu Sektorialaren Araudiaren (IKS) behin betiko Onespenak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2015eko apirilaren 13an argitaratu zena, aurreko Kontseilua desagitea ekarri du. Ingurumeneko Kontseilu Sektorial berriaren Eratze Bilkura 2015eko azaroaren 3an egin zen.

2015eko eratze-prozesuaren ondoren eta 2016. eta 2017. urteetan zehar, hiriko 26 erakundek, gizarte-ospe bereziko kolektibok eta hainbat norbanakok osatzen dute Ingurumeneko Kontseilu Sektorial berria, Udalean ordezkariak duten talde politiko guztietako delegatuekin batera. Erakunde eta kolektibotatik % 70 aurreko Kontseilu Aholkulariko kide ziren elkarteak dira.

IKSean dauden erakundeak tipología ezberdinetakoak dira: erakunde ekologistak eta naturaren defentsakoak, EHUko ordezkariak eta Eskolako Agenda 21 programak dituzten ikastetxeak, erakunde zientifikoak, etb. Hiru norbanakok ere hartzen dute parte, bere garaian hala eskatu zuten-eta. Organo honek aholkularitza eta hiri-partaidetzarako funtzioak betetzeko moduko kideak biltzen ditu, aldaera zein kopuruari begiratuta.

Erakundeen % 31 emakumeek ordezkatzeko dituzte, eta % 69, gizonezkoek.

Con la Aprobación definitiva del Reglamento del Consejo Sectorial de Medio Ambiente (CSMA), publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el lunes 13 de abril de 2015, se disuelve el anterior Consejo, celebrándose la Sesión Constituyente del nuevo Consejo Sectorial de Medio Ambiente el 3 de noviembre de 2015.

Tras el proceso constitutivo de 2015 y durante 2016 y 2017, son 26 las entidades ciudadanas, colectivos de especial relevancia social y personas a título individual quienes integran el Consejo Sectorial de Medio Ambiente, además de las personas delegadas de todos los grupos políticos con representación en el Consistorio. El 70 % de las entidades y colectivos son asociaciones que ya formaban parte del anterior Consejo Asesor.

Las entidades presentes en el CSMA son de tipología diversa: organizaciones ecologistas y de defensa de la naturaleza, representantes de la UPV-EHU y de centros educativos con programas de Agenda 21 Escolar, entidades científicas, etc. También forman parte tres personas a título individual que se postularon en su día. Se considera que este órgano recoge en su seno una variedad y número de integrantes apropiado para cumplir las funciones de asesoramiento y participación ciudadana.

El 31 % de las entidades están representadas por mujeres, y un 69 % las representan hombres.




### 3. IKSaren bileretako partaidetza

Ingurumeneko Kontseilu Sektorialaren urteko ohiko bileretan kideen batez besteko asistentzia zenbatekoa izan den adierazten du adierazle honek, kontseilua osatzen duten kide eta pertsonen kopuruarekin alderatuta. Goranzko joera lortzea da helburua.

### 3. Participación en las reuniones del CSMA

Este indicador representa el promedio de asistencia de las entidades y personas integrantes del Consejo Sectorial de Medio Ambiente (CSMA) a las reuniones ordinarias celebradas durante el año, poniéndolo en relación con el número de miembros que lo componen. La tendencia deseable es el aumento.

|   |                                    |
|---|------------------------------------|
| $\frac{\sum \text{Parte-hartzaile kopurua 2017ko bileratan}}{\sum \text{N}^\circ \text{ de participantes en las reuniones 2017}}$ | (a)= 31                            |
| 2017ko bilera kopurua<br>Número de reuniones 2017   | (b)= 3                             |
| 2017n IKS osatzen zuten kideen kopurua<br>Número de integrantes del CSMA 2017   | (c)= 26                            |
| $\left( \frac{(a/b)}{c} \right) \cdot 100$  |                                    |
| <b>Partaidetza tasa: % 40</b>   | <b>Tasa de participación: 40 %</b> |



Iturria: Donostiako Udaleko Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua.  
Fuente: Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad, del Ayuntamiento de San Sebastián.

2017. urtean egindako hiru bileretan parte-hartze maila % 40koa izan da. IKSko kide guztien % 62ak hiru bilera horietako batean hartu dute parte gutxienez. Bileretara joan diren ordezkarien % 29 emakumezkoak izan dira, eta % 71 gizonzkoak. 2015. urtearekin alderatuta (Kontseilua eratu zen urtea), bileretara bertaratutakoen ehunekoak behera egin duela ikus daiteke. Partaidetza tasak portzentajezko 14 puntu behera egin du 2016. urtearekiko.

En las tres reuniones celebradas durante 2017, la tasa de participación ha sido del 40 %. Un 62 % del total de integrantes del CSMA ha acudido, al menos, a una de estas tres reuniones. El 29 % de representantes que han acudido a las reuniones han sido mujeres, siendo el 71 %, hombres. Se ha podido apreciar que la participación ha disminuido con respecto a las asistencias registradas desde el año de su constitución, 2015. La tasa de participación ha descendido 14 puntos porcentuales respecto a 2016.



## + 55 INGURUMENA. HIRIARENTZAT DIHARDUEN ADINEKO PERTSONEN EKIMENA

Donostiako adineko pertsonen kolektiboa heterogeneoa da, istorio, bizi-ibilbide, premia, gaitasun eta itxaropen anitzak dituzte eta eguneroko bizitza-esperientzietan oinarritutako jakituria ere bai; hori guztia balio handiko aktiboa da komunitate osoarentzat hobeago izango den hiria eraikitzeko.

Errealitate horren jakitun, Udalak, "Donostia Lagunkoia" izeneko Hiri Plana dauka martxan. Plan horrek sail ezberdinek bultzatutako hainbat proiektu eta jarduera biltzen ditu, adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta zahartze aktiboa sustatzeko, eta ondorioz, donostiar guztiena.

Horrekin lotuta sortu zen 2002. urtean, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzatik bultzatuta, +55 izeneko ekimena. Programa honen helburu dira udal-hornidura komunitarioetan parte hartzen duten adinekoen parte-hartzea handitzea, aipatutako zentroetan jarduera kulturalak, hezkuntzakoak eta kiroltakoak antolatuzko proposamen-bideak eskaintzea eta adineko pertsonen beren adinekoen edo komunitate osoaren onurarako antolatutako ekimenek arrakasta izan dezaten baliabideak bermatzea.

+55 programan egiten diren ekintzak askotarikoak dira. Hori-tako bat dugu 2015ean sortu zen ingurumen-tailer aktibo eta berritzailea. Batezbeste 25 lagun inguruk hartzen dute parte (% 50 gizon eta emakumeak). Ingurumenaren arloan eskarmentua eta ezagutza duten adineko pertsonen bultzatutako tailer hori gabezia bat betetzeko helburuarekin sortu zen: haien adinerako ingurumen-proiektu eta ekimen falta. Hamabostero elkartzeko dira eta, bisiten bitartez, leku eta azpiegitura ezberdinak ezagutzeko eta, adituen laguntzarekin, ingurumenarekin eta iraunkortasunarekin lotutako gaietan (globalak edo Donostiari lotutakoak) sakontzeko aukera izaten dute, hiriaren bizi-kalitateari eta iraunkortasunari buruzko gaien inguruan adinekoen proposamen-gaitasuna sustatuz.

Tailerraren bitartez, hiriko ingurumen-arazoak ezagutu eta horien inguruko irizpide propioa izatea lortu nahi da (paradoxikoki herritarrok eragin eta jasaten ditugu egunero arazo horiek), tokiko arazoak globalen gainean duten eragina ere kontuan hartuz. Tailerraren dinamika eta konfigurazioari esker, parte-hartzaileak, hiri iraunkorrago eta ingurumenari dagokionez kalitatezkoagoa lortzeko eragile aktibo bihurtu dira: 2016/2017an udalak landutako Estrategia Klimatikoa osatu zuten lantaldeetan parte hartu dute, eta hortik irten da Klima DSS 2050 izeneko Plana.

2017/18 ikasturtean hiriaren ingurumen-egoera orokorraren inguruan eztabaidatu eta sakondu da, hainbat gai kontuan hartuz: airearen kalitatea, zarata, mugikortasuna,

## + 55 MEDIO AMBIENTE. UNA INICIATIVA DE PERSONAS MAYORES QUE ACTÚA PARA LA CIUDAD

La heterogeneidad del colectivo que conforman las personas mayores en San Sebastián, con historias, trayectorias de vida, necesidades, capacidades y expectativas muy diversas, y con conocimientos y saberes basados en experiencias de vida cotidiana también diversas, supone un activo de gran valor para la construcción de una ciudad mejor para toda la comunidad.

Consciente de esta realidad, el Ayuntamiento tiene establecido un Plan de Ciudad denominado "Donostia Lagunkoia", un plan que aglutina proyectos y actividades impulsados por distintos departamentos para mejorar la calidad de vida de las personas mayores y en pro del envejecimiento activo, y que, por extensión, incide en toda la sociedad donostiarra.

En este contexto se entronca una iniciativa impulsada desde 2002 por la Dirección de Bienestar Social denominada +55. Los objetivos de este programa buscan aumentar la participación de las personas mayores en los equipamientos municipales comunitarios, articulando cauces de propuesta para la organización de actividades culturales, educativas y deportivas en los citados centros, y garantizando recursos suficientes para viabilizar el éxito de las acciones desarrolladas por personas mayores en beneficio de este colectivo o de la comunidad.

Las labores y acciones que se realizan en +55 son de muy diverso tipo. Una de ellas es un activo e innovador taller de medio ambiente que se constituyó en 2015, y en el que vienen participando una media de 25 personas de ambos sexos (50 % hombres y mujeres). Impulsado por las propias personas mayores con experiencia y conocimiento en el área de medio ambiente, el taller se constituyó con el fin de cubrir una carencia: la ausencia de proyectos e iniciativas ambientales para su franja de edad. De este modo, han constituido un lugar de encuentro quincenal que les permite conocer, mediante visitas, lugares e infraestructuras, y profundizar ellas mismas, -así como con personas expertas a las que invitan-, en muy diferentes temas relacionados con el medio ambiente y la sostenibilidad, tanto de cuestiones globales o locales, propiciando así la capacidad de propuesta de las personas mayores sobre aspectos que atañen a la calidad de vida y la sostenibilidad de la ciudad.

Tal como está configurado el taller, se busca conocer y tener criterio propio sobre aquellos problemas medioambientales locales que, paradójicamente, somos la propia ciudadanía quienes a diario los provocamos y al mismo tiempo los padecemos, analizando también la incidencia que estos problemas locales tienen sobre los globales. La dinámica y configuración del taller ha permitido que la gente que viene



hondakinen birziklapena eta tratamendua, argi- eta energia-aurrezpena, ingurumen-inpaktu horien eta osasunaren arteko erlazioa, klima-aldaketa, bioaniztasuna eta Europatik bultzatutako ingurumen-politikak. Prestakuntza eta eztabaidarako mintegiez gainera, bisitak egin dira Ulia-Jaizkibel itsasertzera katamaranez, energia berriztagarrien instalazio batera, Zabalgarbiko hondakin-errautsegira, eta bioaniztasunez betetako parajea eskaintzen duten Igeldora eta Pagoetako parketxera.

participando se haya convertido también en agentes activos de un desarrollo más sostenible y de calidad ambiental para la ciudad, participando en los grupos de trabajo que configuraron la Estrategia Climática elaborada a lo largo de 2016/2017 por el Ayuntamiento y que ha cristalizado en el Plan denominado Klima DSS 2050.

Durante el curso 2017/2018 se ha podido debatir y profundizar sobre el estado ambiental general de la ciudad, deteniéndose en aspectos como la calidad del aire, el ruido, la movilidad, el reciclaje y tratamiento de los residuos, el ahorro de luz y energía, la relación de estos impactos ambientales con la salud, el cambio climático, la biodiversidad o las políticas ambientales impulsadas desde Europa. Además de los seminarios formativos y de debate, se han articulado visitas al litoral de Ulia-Jaizkibel en catamarán, a una instalación de energías renovables, a la incineradora de residuos de Zabalgarbi, a un paraje con biodiversidad en la ciudad como es Igeldo o al parketxe de Pagoeta.